



Izenburua	Gazteria eta euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituretan eragiteko. Bermeoko esperientzia.
Egilea	Maite Alvarez eta Iñaki Lopez
Data	2010/04/22

aurkibidea

aurkibidea	2
1. Sarrera: Elkarlana nondik sortu zen.....	3
2. Bermeoko 12 eta 18 urte bitarteko gazteak eta euskara: gaitasuna, erabilera eta motibazioa	3
3. Gazte planaren batzordea	5
4. Gazteentzako aisialdirako eskaintza publikoa.....	7
5. Gazteentzako aisialdirako eskaintza: elkarteak.....	9
6. Gazteentzako kirol arloko eskaintza.....	10
7. Elkarlanaren ondorioak aisialdiko lanean.....	11
8. Sare sozialak	12

1. Sarrera: Elkarlana nondik sortu zen

Bermeo 17.135 biztanleko herria da (8.440 gizon eta 8.695 andrazko). Horietatik, 900 inguru 12 eta 18 urte bitarteko gazteak dira. Bermeoko biztanleen %80a euskalduna da. Gazteen egungo egoera asko eta asko aldatu da azkeneko urteetan. Horregatik, udal zerbitzuen interbentzioa ezin da mugatu kultur, aisi eta astialdiko ekintzak antolatzen soilik.

Gazteria eta Euskara Zerbitzuen elkarlanaren hastapenak 2000. urtean ditugu, eta elkarlan horretan apurka-apurka sakonduz joan izan gara. Lehenengo eta behin, gazteen artean euskararen erabilera zertan zegoen jabetzeko hausnarketa prozesua bideratu zen, euskara taldeek ere parte hartu zutela horretan, eta harrezkero, Gazte Planaren batzordean parte hartzearen ondorioz, hainbat ekintza martxan jartzen hasi ginen.

Bermeoko gaztetxoaren artean antzematen zen alkoholaren gehiegizko kontsumoaren kezkatik abiatu hasi ginen lanean Gazte Planaren batzordean eta urtebete lan teoriko sakona burutu ostean, Bermeoko Gazte Plana aurkeztu genuen. 2001eko udaberrian, Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak Gazte Plana onartu zuen eta urte bereko udan, herriko ume eta gazteei zuzendutako zerbitzuen herri batzordea eratu zen, Gazte Planeko Batzordea, alegia. Hasieratik Euskara Saila, besteak beste, batzorde horretako partaide izan zen.

Ponentzia honetan azaldu nahi ditugu Bermeon elkarrekin egin dugun eta egiten ari garen lanaren zertzelada batzuk, Gazte Planaren batzordeak eman dugun aukera baliatuz, elkarrekin alde askotariko lana egin ahal izan dugulako. Horrek guztiak luze joko lukeenez, bereziki, Gazteria eta Euskara zerbitzuen artean landu dugun aisialdiko eskaintza eta Kuadrillategi proiektuak eman dituenak aurkeztu nahi ditugu.

2. Bermeoko 12 eta 18 urte bitarteko gazteak eta euskara: gaitasuna, erabilera eta motibazioa

Datu demolingüistikoak

Biztanleak				Ama hizkuntza							
Guztira		12-18 urte		Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
16.789	100	933	5,56	570	61,09	118	12,65	215	23,04	30	3,22

Hizkuntza gaitasuna						Etxeko hizkuntza					
Euskaldunak		Ia euskald.		Erdaldunak		Euskara		Biak		Gaztelania	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
791	84,78	96	10,29	46	4,93	338	36,23	320	34,3	273	29,26

Eustat: 2006ko datuak

Kale neurketa

	1989	1993	1997	2001	2006
Haurrak (0-14)	%44,00	%40,17	%56,06	%62,60	%69,86
Gazteak (15-24)	%7,10	%11,69	%23,55	%39,50	%36,34
Helduak (25-64)	%43,10	%53,16	%41,18	%51,50	%49,30
Adinekoak (> 65)	%77,10	%86,83	%71,56	%68,40	%80,14
Guztira	%42,90	%47,12	%48,09	%54,50	%60,67

Institutuan egindako erabileraren neurketa. 2003ko datuak

Entzuketa bidez egin zen neurketa, guneez formaletan, korridoreetan, jolastokian eta ikastetxeo sarrera-irteeretan.

Batez besteko erabilera % 25

Batxilergoan DBHn baino erabilera handiagoa. DBH 1en erabilera handiagoa 2. zikloan baino. Irakasleen eta gainerako langileen erabilera datuak %50a inguru.

Hizkuntza ingurunea: familia, eskola, herria eta kalearen eragina

Euskara eta euskara eta gaztelania jaso dute: 688 gaztek, %73,74

Euskaldunak dira eta ia euskaldunak dira: 887 gazte, %95,07

Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dute: 658 gaztek, %70,53

Euskarari buruzko pertzepzioak, motibazioa, jarrerak

Motibazio saioetan parte hartzen dute 2002tik aurrera urtero 15-16 urteko gazteek, euskarari buruzko hausnarketa eta jarrera kontzienteak lantzeko helburuz, eta euren hizkuntza hautuaz jabetzeko espazioa eta denbora eskaintzen zaie.

Saioetan euskararen kontrako jarrerarik ez da agertu, identitateari lotutako motibazioak gailentzen dira eta atxikimendua erakusten dute. Erabileraren aldetik, berriz, askok etxekoekin eta zenbait lagunekin euskara erabiltzen badute ere, gelakideekin nagusiki gaztelaniara jotzeko ohitura dute.

Ondorioak:

- 1- Familian euskara jaso ez arren, eskolak eta herriak gaitasuna areagotzen laguntzen dute.
- 2- Adin tarte honetako gazte ia guztiek gaitasuna badute, gaitasun erlatiboa ez dakigu norainokoa den.
- 3- Etxeko hizkuntzari dagokionez, nolabaiteko galera dago erabileran, ama hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenen kopuruari erreparatuta, etxean gutxiago erabiltzen da euskara.
- 4- Kale neurketaren datuek erakusten dute adin taldeen arteko erabilera handiagoa dela adin berekoen artean baino, hau da, gazteek euskara gehiago erabiltzen dute umeeekin eta adinekoekin bere adin taldekoekin baino.
- 5- Gazteek euskararekiko atxikimendua dute, euskara gehiago egiteko gogoia ere, baina hori ez dator bat erabilera errealarekin.
- 6- Gaztelaniaz egiteko joera ohitura bihurtu da adin hauetako gazteengan
- 7- Euskaraz berba egiteko ohitura landu daiteke, lagunartean eta ondo pasatzeko ekintzetan
- 8- Udalak euskararen aldeko hizkuntza ohitura sustatzeko espazioa eta denbora eskaintzerik badauka
- 9- Udalak daukan kirol eskaintzan badago euskara gehiago erabiltzerik, bai monitoreen gaitasunaren aldetik, baita erabiltzaileen aldetik ere. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak landu beharra dago.
- 10- Kirol elkarteetan gaztelania erabiltzeko ohitura handia dago. Herriko euskararen prestigioa zerikusi handia dauka ahozko erabileran eta baita monitoreen hizkuntza-hautuan ere.

3. Gazte planaren batzordea

Lan prozesua

Bermeoko Gazte Plana Udaleko hainbat Sail eta Organismo Autonomo bien artean izandako elkarlanaren fruitua dela esan dezakegu.

Honako hauek dira Gazte Planeko batzordea osatzen dutenak:

- Bermeoko alkatea.
- Kultura zinegotzi delegatua.
- Kultura eta Hezkuntza Saileko teknikaria.
- Gazteentzako Informazio Zerbitzuko (GIZ) teknikaria.
- Gazte Ekimenak Sustatzeko Zerbitzuko (GEZ) teknikaria (2003tik aurrera).
- Euskara Saileko teknikaria.
- Behargintza Zentroko Enplegurako orientatzailea.
- Kirol Patronatuko zuzendaria.
- Ingurumen teknikaria.
- Osasun eta Gizarte Ongizate Udal Patronatuko adin txikikoen gizarte langilea.
- Gizarte Heziketarako Esku-hartze Taldeko (GHET) arduraduna.
- Drogamenpekotasunei Aurrea Hartzeko teknikaria.
- Berdintasunaren aldeko agentea.

Lehenengo fasean, batzordearen nortasuna zehaztu zen, hau da: misioa, zerbitzuak, jasotzaileak eta baloreak. Era berean, ume eta gazteei zuzendutako herriko udal zerbitzuen azterketa egin zen, ondoren, inguruaren (ume eta gazteei zuzendutako errekurtso eta beharrianak) eta Udalaren analisisa egiteko.

Analisisa amaitu ostean, legealdi bakoitzean garatu beharreko lan ildoak ezarri ziran. Ondoren, Gazte Planaren zirriborroa aurkeztu zitzaizen inplikaturako zinegotzi eta politikariei dokumentua onartu zezaten.

I. Planetik bertatik nabarmendu zen gazteei zuzendutako udal zerbitzuak eta bereziki, aisialdi, kultura eta kirol arlokoak euskaraz eskaini beharra zegoela, arlo ez formaletan erabilera sustatzearren.

Gazte Planaren printzipio zuzendaria: Ume eta gazteei zuzendutako zerbitzuak eta eragile, zerbitzu eta ekipamenduen udal sare bat garatzea.

Bestalde, helburu estrategikoak ondorengoak izan dira hasieratik:

- 16-21 urteko gazteei zuzendutako interbentzioak garatzea.
- Ume-gazteei zuzendutako zerbitzu espezifikoen udal sarea garatzea.
- Eragile eta erakundeei zuzendutako udal zerbitzuak, edo udal ardurapeko zerbitzuak garatzea.
- Ume eta gazteei zuzendutako zerbitzu espezifikoen Batzordearen errekurtso eta kudeaketa ahalmena garatzea
- Euskal eta tokiko nortasunean sakontzea beste herrialde, identitate, kultura eta errealitateetara irekita egonik (Euskararen erabilera bultzatzea).
- Gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea.
- Arriskuan dauden ume eta gazteen gizarteratzea eragitea.
- Jarduera, proiektu, programa, plan eta politiketan gazteen parte hartzea bultzatu eta erraztea.

I.Gazte Planean, besteak beste, gazteekin lan egiten zuten aisialdiko begiraleentzako prestakuntza ikastaroak egin ziren, planaren zeharkako ildoetan sakontzeko. Euskararen alorrari dagokionez, begiraleek euskararen erabilera sustatzeko egin dezaketen lanaren inguruan aritu ginen.

Bestetik, gazteentzako tailerrak euskaraz antolatu ziren, hala nola, asteburuetan.com eskaintzaren barruan eta Gaztelekua kudeatzen zuen aisialdi taldearen bitartez.

Eta 2005ean, Gaztelekua kudeatzeko adjudikazioa berriro behar zela eta, 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat Udalak daukan baliabide horretan, zehar lerroak lantzeko baldintzak ezarri ziren eta euskarari dagokionez, Kuadrillategi egitasmoa lantzeko baldintza zehaztu zen.

EAEko II. Gazte Planak ezarritako moduan, Bermeoko II. Gazte Plana arlo hauetan ari da lanean:

1. Lana eta Laneratzea.
2. Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntza.
3. Etxebizitza.
4. Osasuna eta Gizarte Ekintza.
5. Aisia eta Kultura.
6. Zeharkako ildoak: Euskara, Ingurumena

4. Gazteentzako aisialdirako eskaintza publikoa

2010eko eroldaren arabera, Bermeon 12 eta 18 urte bitarteko 867 gazte daude. Horietatik, 455 mutilak dira eta 412, aldiz, neskak.

Udalaren kultura eskaintza hau da:

Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxea

Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxea 2006ko abenduan inauguratu zen. Lau gune nagusi ditu: ume eta gazte zerbitzuak; herriko kultur taldeek erabiltzeko gelak (dantza, musika, eskulanak, sukaldea...); gela orokorrak (hitzaldi aretoa, batzar gelak, ikasketa gelak) eta Kultura Saileko bulegoa. Eta beste bi gune independente: Bermeoko Kafe Antzokia eta Nagusien Txokoa.

Ume eta Gazte Zerbitzuak

Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ), Gazteen Ekimenak Sustatzeko Zerbitzua (GEZ), Bermesex Sexu Aholkularitza Zerbitzua, Gaztelekua eta Ludoteka.

Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ)

- **Zer da?** Bermeoko gazteei eskaintzen zaien udal zerbitzua da; bertan gehien interesatzen zaizkien gaiari buruzko informazioa eta aholkularitza dute. Aisialdia, bidaiak, udalekuak, ikastaroak, lan-eskaintza publiko eta pribatuak, bekak, sexualitatea, prestakuntza, etxebizitza, boluntarismoa, auzolandegiak, gaur egungo gaiak eta abar.
- **Bidaiateka:** Bidaiak antolatzeko baliabide eta material zabala: gidak, mapak, aterpetxe eta camping gidak...
- **Txartelen jaulkipena:** Nazioarteko deskontuak eta ostatua lortzeko txartelak: Ikasle Txartela (ISIC), Irakasle Txartela (ITIC), Aterpekide Txartela eta Nazioarteko Gazte-Txartela (GO 25).
- **Norbere kontsultarako ordenagailuak:** Norbere kontsultarako 3 ordenagailu daude, interneteko lotura eta programa askorekin.

Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzuak, bestalde, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hainbat jarduera antolatzen ditu urtero. Batzuk, herriko edo inguruko kultur eta kirol elkarteekin eta beste batzuk, Udaleko beste departamentu edo zerbitzuekin.

2009an, esate baterako, Aisialdi Programaren barnean, surf ikastaro bi egin dira, hastapeneko eta hobekuntzako, hain zuzen. Gainera, laugarren urtez jarraian skate ikastaroak prestatu dira Bermeoko Skateruek taldearen laguntzarekin. Hasiera batean kanpoko begiraleekin egiten ziren baina herrian skate taldea sortu zenetik aurrera, herriko monitore euskaldun gazteak dira eskolak emateaz arduratzen direnak.

Bestalde, Gaztelekuak eta GIZek elkarlanean antolatutako Madrileko Warner Bros jolas parkera irteera bat antolatu da 12 eta 18 urte bitarteko gazteekin.

Azpimarratzekoa da, bestalde, iaz aurreneko aldiz antolatutako Gazteentzako Moda Desfilea. Lehiaketa formatuarekin taldeka burutu zen. Guztira, 80 gazte apuntatu ziren 16 taldetan banatuta. Azkenean, baina, 12 eta 17 urte bitarteko 35 gaztek bakarrik parte hartu ahal izan zuten, bost laguneko sei taldetan banatuta. Parte hartzaileek taldekako desfile bat eta banakako beste bat prestatu zuten. Desfilearen aurkezlea eta musika jartzailea Goazen! filmeko Jon Urbieta (Balzar) izan zen. Gazteak oso pozik geratu ziren emaitzarekin eta aurten berriro egitekotan gaude.

Aipatu jarduera guzti hauen prozesu osoan erabilitako hizkuntza bakarra euskara izan da, alegia: proiektuen idazkeran eta prestaketa batzarretan, jardueren garapenean eta jardura guztietako materialaren prestakuntzan eta zabalkundearen (publizitatea, triptikoak, kartelak eta abar egiterakoan).

Gazte Ekimenak Sustatzeko Zerbitzua (GEZ)

- **Zer da?** Bermeoko gazteei eskaintzen zaien udal zerbitzua da. Bertan, gehien interesatzen zaizkien gaietarako proposamenak eta ideiak jorratzeko orientabidea eta aholkularitza ematen zaie.
- **Gazteen ekimenen bultzada:** Gazteei, jarduera edo jaialdi bat aztertu eta antolatzeko laguntza eta aholkularitza ematen zaie, bai ekimenen diseinuan eta bai finantziazio-bideak bilatzerako orduan.
- **Aholkularitza:** Elkarlana sortzeko jarraitu beharreko prozesuan aholkua eta orientabidea eskaintzen da.

Bermesex

2005. urteaz geroztik martxan daukagun gazteei zuzendutako Sexu Aholkularitza Zerbitzua da. Urteko eguen guztietan (abuztuan izan ezik) eskaintzen da, arratsaldeko 6etatik 8etara, Kultura Etxeko bigarren solairuan. Aholkularitza zuzena, telefono bidezkoa eta on-line bidezkoa ematen da. Zerbitzua euskara hutsean ematen da.

Sexu Aholkularitza Zerbitzuaren barruan, gazte bitartekarietarako eta Lanbide Hastapeneko lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzendutako Sexu Afektibitateari buruzko ikastaroak burutu dira. Horretaz gainera, herriko institutuan eta Ikastolan sexu-heziketa ematen da.

Gazteen artean euskara bultzatzeko, Piropo lehiaketa bi burutu izan dira. Ezinbesteko baldintza zen euskarazko piropoak izatea. Parte-hartzea oso handia izan da, 200dik gora.

Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegia

Bermeoko Udal Liburutegia 1987. urtetik dago martxan. Hainbat erabiltzaileentzako zerbitzuak ditu, gazteak barne (bideoteka, fonoteka...) eta teknologia berrietara egokituta dago (wifi, norbere kontsultarako ordenagailuak...). Liburutegiarekin elkarlanean, urtero, euskarazko Literatura Lantegia prestatzen dute Euskara Sailak eta GIZek.

Jose Antonio Egia Udalaren Musika Eskola

Hamasei urte pasatu dira Udalaren musika-eskolak ateak zabaltzen zituenetik. Ibilbide luze horretan milaka doinu sortu eta plazaratu dituzte musika-eskolatik pasatu diren ume, gazte zein helduak. Duela lau urte hasitako elkarlanari esker, gazteei zuzendutako Perkusio eta Txalaparta ikastaroak eta Musika Udalekuak antolatzen dituzte urtero GIZek eta Musika Eskolak. Ekintza guztiak euskara hutsean dira.

Lanbide Hastapena

Duela ia 20 urte hasi zen martxan Bermeoko Lanbide Hastapena. Ikastegi honen helburua DBHko titulua eskuratzen ez duen ikasleari oinarriko prestakuntza eta lanbide bateko edo besteko prestakuntza ematea da, bai lan munduan sartzeko ahalbidea izateko, bai aurrerantzean ikasketekin jarraitu ahal izateko. GIZek eta Lanbide Hastapenak duela sei urte hasitako elkarlanetik gazteei zuzendutako euskarazko Sukaldaritzaren hastapen ikastaroak antolatzen dira urtero.

Gaztelekua

Gaztelekua, herriko Batun-Batun elkarteak 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat egiten duen aisialdi eskaintza da. 2006tik 2009ra arte, zapatuetan, Kuadrillategi egitasmoa ere lantzen zen Gaztelekuan, gaztelekua kudeatzeko baldintzetan zehaztu zen moduan. Gaztelekuaren xedea gazteak beraien artean harreman ondu pasatzea da. Ekintza bereziak prestatzen dituzte: futbolin txapelketak, karaoke saioak, eskulanak eta irteerak, besteak beste.

Gazteen aisialdiaren bitartez hizkuntza ohituretan eragiteko egitasmoa: Kuadrillategi

- **Zer da Kuadrillategi?**

Aisialdi eskaintza 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei zuzenduta. Baldintza bi bete behar dira, izena koadrilaka ematea eta bertan dauden bitartean euskaraz berba egitea.

- **Zer nola egin dugun**

- 1- Proposatu eta onartu

Gazte Planaren Batzordean proiektua lantzeko proposamena egin eta ontzat hartu zen, hortaz, Gaztelekua kudeatzeko adjudikazioan, baldintza gisa Kuadrillategi lantzeko eskatu zen helburu hauek lantzeko:

- ✓ Gaztetxoen hizkuntza ohituretan aisialdiaren bitartez eragitea.
- ✓ Gaitasun apala daukaten gaztetxoen gaitasuna hobetzea.
- ✓ Proiektu orokor baten barruan, hau da, Udalak 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat eskaintzen duen aisialdiko lokalean, Gaztelekuan, gaztetxoei euskaraz egiteko lekua eskaintzea.

- 2- Prestaketa lanak

Sei hilabetez Kuadrillategi aholkularitza, begiraleak eta Euskara Saila lanean izan ziren proiektua gure herrira molda ote zitekeen aztertzen, egitasmoa modu sakonagoan ezagutzen, gure ezaugarriak aztertzen, non, noiz, zelan egin eskaintza, nola uztartu Gaztelekuak dituen helburuekin... Horiek guztiak aztertu eta zehaztuta, Kuadrillategirekin aurrera egitea bazegoela ondorioztatu genuen.

- 3- Martxan jartzen

Hiru ikasturtez landu dugu Kuadrillategi, 2006tik 2009ra bitarte, 12 eta 14 urte bitarteko gazteekin lan egin da asteen bi orduz, Gaztelekuaren lokal berean baina ordu eta egun desberdinetan.

Gazteei komunikatzeko kanpaina eta aurkezpenak antolatu dira urtero ikasturtearen hasieran.

Jarraipena egin zaio egitasmoari parte hartu dugun eragileen aldetik: aholkularitzak, suspertzaileek eta Udalaren aldetik hasieran Euskara Sailak bakarrik parte hartzen bazuen ere, Gazteria Zerbitzuak eskumen gehiago izan dituen neurrian parte hartze handiagoa izan du.

Suspertzaileek KTGren eskutik formazioa jasotzeko aukera izan dute, bai lan metodologian sakontzeko, baita beste KTGkoekin harremanak izateko eta sortzen ziren arazoan aurrean gogoeta egiteko.

- 4- Ebaluatzen

lazko ikasturtearen ebaluazioaren ondorioetako bat izan zen gaia beste era batera landu beharra zegoela, Kuadrillategi proiektuak bere zikloa bete duela eta aisialdiko eskaintza beste era batera egin behar dela. Eskaintza hori definitzen eta zehazten ari gara apiriletik aurrera tailerrekin hasteko.

5. Gazteentzako aisialdirako eskaintza: elkarteak

Bermeon, 35 kultur talde daude momentu honetan. Gehienak musika munduarekin lotutako elkarteak badira be (abesbatzak, fanfarrea, perkusioa, txistua...), bestelakoak ere topatzen ditugu, beste batzuen artean: antzerki taldeak, aisialdi taldeak, eskulan taldeak (argazkilaritza, pintura, zeramika...), dantza

taldeak edota euskara talde bat. Talde hauek, gazteei zuzendutako tailer eta ikastaroak antolatzen dituzte, hain zuzen:

Bermeoko Kultur Taldeak

- ALKARTASUNA DANTZA TALDEA: Ume eta gazteentzat euskal dantza ikastaroak.
- BARRUETA ARTE ELKARTEA: Ume eta gazteentzat pintura ikastaroak.
- BATUN-BATUN AISIALDI ELKARTEA: Gaztelekuaren kudeaketaz arduratzen da.
- BERMEOKO ROL ESKOLA ELKARTEA: Rol tailerrak gazteentzat.
- BUZTINA KERAMIKA TALDEA: Gazteei zuzendutako zeramika ikastaroak.
- CREATTE ELKARTE KULTURALA: Antzerki ikastaroak gazteentzat.
- D'ARBUKA PERKUSIO TALDEA: Gazteei zuzendutako perkusio ikastaroak.
- IZARO ABESBATZA: Gazteen abesbatza, ETBko Oh Happy Day! Saioko finalistak.
- JAKIN BADA KIGU INFORMATIKA ELKARTEA: Software librearen inguruko ikastaroak eta hitzaldiak.
- LA CAPILLA ROCK ELKARTEA: Herriko Rock talde guztiak batzen dituen elkarte.
- MB-2000 ZERBITZU SOZIOKULTURALAK: Ludotekaren kudeaketaz arduratzen da.
- NUNTXAKU KULTUR ELKARTEA: Gazteentzako kontzertu eta jaialdiak antolatzen ditu.
- SKATERUEK ELKARTEA: Skate Or Due jaialdia antolatzen dute urtero.
- SPOOKYPHERIA PRODUCTIONS TALDEA: Gorefest eta Halloween Metal Fest jaialdiak antolatzen dituzte.
- URDAIBAI TUNING TALDEA: Bermeoko Tuning Topaketak antolatzen dituzte.

6. Gazteentzako kirol arloko eskaintza

Gazteentzat dagoen kirol eskaintzan, publikoa zein kirol elkarteek bideratuta, euskara erabiltzen den arren, zer hobetu asko dago. Horretaz jabeturik, pausuak eman dira azken urteetan, Udalaren Kirol Patronatuarekin eta kirol elkarteekin elkarlana sakondu da eta datozen urte bietarako plan oso bat martxan ari gara jartzen, Kirol Patronatua, kirol elkarteak eta Euskara Saila, arreta berezia jarriz ume eta gazteentzako kirol ekintzetan.

Esparru hauetan ari gara lanean:

- Kirol patronatuko ikastaroak
- Ikastetxeetako eskolaz kanpoko ekintzak
- Elkarteetako kideak eta bazkideak
- Monitorea eta entrenamenduak
- Kirol munduko erreferenteak
- Federazioak

7. Elkarlanaren ondorioak aisialdiko lanean

Emaitzak. Zer lortu dugun

- ✓ Gazte Plana eta Euskara Plana uztartzea gazteen euskararen erabilerari dagokionez
- ✓ Egitasmoa mamitzeko prestaketari arreta berezia jartzea, adostasunak bilatzea, bide irekia planteatzea, aukerak eta arazoak elkarrekin aztertzeo jokaera lantzea
- ✓ Suspertzaileek Kuadrillategi proiektua bere egitea, motibazioa, parte hartzea, gogoa, ikasteko grina eta formazioa jasotzeko jarrera ona
- ✓ Gazteen parte hartze aktiboa sustatzea: eurek proposatutako ekintzak egitea
- ✓ Gazte talde batzuek euren gustuko aisialdi eskaintzan euskaraz parte hartu dute. Euskaraz gozatu dute
- ✓ Parte hartu duten gazteen euskarazko gaitasuna hobetzea
- ✓ Euskaraz hitz egiteari beldurra kentzea
- ✓ Parte hartu duten gazteen lagunartean euskara erabiltzeko ohitura sortzea, Kuadrillategiko denboran eta hortik kanpo ere
- ✓ Parte hartu duten gazteen gurasoen aldeko balorazioa

Zer ez dugun lortu

- ✓ Eragina mugatua izan da, 12 eta 14 urteko gazte talde mugatu batengana baino ez gara heldu
- ✓ 14 eta 16 urte bitarteko gazte talderik ez dugu erakarri
- ✓ Kuadrillategiren dinamika ez da zabaldu Gaztelekura
- ✓ Metodologia astunegi egin da urtez urte lantzeko
- ✓ Proiektuaren iraunkortasuna bermatzea zaila da, era askotako faktoreak direla eta. Batzuk Udalari dagozkionak, beste batzuk ekintzaren jarraipenari dagozkionak, beste batzuk gazteen dinamikari dagozkionak:
 - Gazte Planaren batzordea bertan behera geratu izana
 - Aurrekontu-arazoak
 - Kuadrillategi aholkularitzaren aldaketa
 - Eskaintzak erakargarritasuna galdu du
 - Kirol ekintzetako parte hartzea aisialdiko eskaintzaren kaltetan
 - Txokoetan batzeko ohitura zabaltea
- ✓ Oro har, eskaintzak indarra galdu du hirugarren urtean.

Eta orain zer: etapa bat amaitu, beste bat hasi

- ✓ Aisialdi eskaintza erakargarria lortu nahi dugu, gazteen gozamenean oinarrituta: tailerrak, txokoen arteko ginkama, kanpaldia...
- ✓ Eragile eta alde askotako lana indartu nahi dugu: leku batean baino gehiagotan, aisialdian, kirolean, kulturean, sare sozial birtualetan...
- ✓ Mezu koherenteak, jarrerak aktibatzeo tresnak martxan jarri
- ✓ Taldea – koadrila – tribua – liderrak – erreferenteak landu
- ✓ Gazte Planeko batzordea berriro martxan jartzeko lan egin, arlo askotako elkarlanerako gune gisa, hausnarketa sustatu eta ekintza planifikatu
- ✓ Baliabideak gehitu, aurrekontu-arazoak gainditu
- ✓ Bi-hiru hilabeteko tailerrak antolatu Gaztelekuen ordu eta espaziotik kanpo
- ✓ Gaztetxoen interes-guneetatik abiatu
- ✓ Gaztetxoen txokoak aintzat hartu eta txokoen arteko harremanak sustatu

8. Sare sozialak

Egungo gazteentzat Internet eguneroko ogia da. [Marc Prensky](#) adituak "natibo digital" izendatu zituen gazte hauek, eta izen horrekin teknologia digitala erabiltzen hazi den pertsona bat adierazi nahi du. Adibidez, ordenagailuak, Internet, eskuko telefonoak eta mp3a.

Gero eta gehiago dira etxean ordenagailua eta Interneterako sarbidea dituzten gazteak. Gazteen Euskal Behatokiak igaz argitaratutako *Euskadiko Gazteak 2008* ikerketa soziologikoaren arabera, Euskadiko 14 eta 29 urte bitarteko lau gaztetik hiru etxetik atera barik sartu daitezke Interneten. Horri lantoki edo ikasketa-zentrotik, ziberretatik, gazteleku-gaztegunee eta GIBetatik konektatzeko aukera gehituz gero, ez da harrizkoa gazteen %90ek Internetera inoiz edo askotan konektatu direla adieraztea, duela hamar urteko portzentajeak bikoiztuz (2000n erdiak baino gutxiago ziran, hain zuzen %46, Internetera inoiz konektatu izandako gazteak).

Internetera konektatzen diren gazteen kopurua ez ezik, konexio orduak be areagotu dira. Zehazki, Internet erabiltzen duten gazte bitik bat astean 7 orduz baino gehiagoz konektatzen da. Kontuan izan behar dugu gazteek batez beste 4-5 ordu libre dituztela astegunetan, 20-25 ordu astean. Gazteen artean, beraz, astegunetako aisialdiko jarduera ohikoena Interneten nabigatzen denbora-pasa aritzea da. Honen atzetik, ordenagailuarekin edo bideo-jokoekin kontsolekin jolastea, kirola egitea eta telebista edo DVDa ikustea dagoz.

Testuinguru honetan, sare sozialak topatzen ditugu. Sare sozialak, definizioz, munduko pertsona guztiak konektatuta egon gaitzeko ideian oinarrituta dagoz. Zuk lagun bat daukazu, eta lagun honek beste lagun batekin konektatzen zaitu, eta hirugarren honek laugarren batekin... amaierarik ez daukan kate batean.

Gaur egun modan dagoz Facebook, Tuenti, Twitter eta abarrekoetan kontu edo profil bat izatea. Dena dela, sare soziala, hau da, interneten bidez jende koadrilak osatu eta euren artean zerbait partekatzea ez da hain berria. Foroak izan ziran hasikeran, txatak eta IRCak ostean (messenger...) eta blogak eta web 2.0. zerbitzu klasikoak gero (delicious, flickr, youtube...). Hauetan denetan lagunak, kontaktuak eta gogoko erabiltzaileak hautatzeko modua egon da aspalditik.

Internet komunikazio kanala da. Baina, zelako komunikazioa gertatzen da hauetan? Ba, gehien-gehienetan berba gutxiko testuak izaten dira, ez dira tabernako solasaldiak edo mahai baten inguruko batzarrak modukoak izaten.

Adibidez, norbaiten egoeraz edo argazkian iruzkinen bat, mezu laburren bat, link bat, eta gomendio-aholku eta komentario laburrak: "Ikusi duzue hau...?", "A ze ondo!", "Zorionak", "Eskerrik asko", "Lanean nago", "Zapatuko parranda"... Esaldi bakarreko diskurtsoak izaten dira askotan, baina hori guztia be komunikazioa da.

Euskara ikasten ari diren hasiberrientzat komunikazio tresna oso egokia izan daiteke. Komunikazio erreala dago eta hizkuntza "erraza" praktikatzen da. Goian aipatu ditugun esaldi labur komunikatibo erreale horiek ikasteko baliabide onak direla iruditzen zait.

Sare sozialen indarra elkar ezagutzen duen jendearen arteko loturetan dago. Azken finean, bai uste dut sare hauek plataforma onak direla marketing modu berriak erabiltzeko eta zabaltzeko eta marketing mundu barri bat irekitzeko webguneak.

Bermeoko GIZek, 2009ko martxoaz geroztik blog bat dauka (www.giz.bermeo.org). Urtebetean, 15.000 bisita baino gehiago izan ditu, 1.250 bisita hilean. 2009ko maiatzetik, Tuenti eta Facebook-en profila dauka. Tuentin, adibidez, 500 lagun baino gehiago dauka (kopuru horretatik gora ezin dira kontabilizatu) GIZek eta ia 5.000 bisita izan ditu urtebetean. Gazteen adinari dagokionez, gehienak 12/14 eta 24/26 urte bitartekoak dira. Adin horretatik aurrera Facebook-era egiten dute salto.

Bermeoko GIZek, 2009an neurketa bat egin zuen 25 urtetik azpikoen artean. Hona hemen neurketaren datu batzuk:

- Sakelako telefonoa daukate: %96
- Messenger darabilte: %91
- Kontu bat dute Tuentin: %80
- Kontu bat dute Facebook-en: %37
- Fotolog bat dute: %20
- Blog bat daukate: %9

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:

